Eta horrela, gizon hoiek eta beren untzitxoak bakarrik utzi zuten arte.

Martziano hoietako batek, nagu-siak, esan zion ondokoari:

-X 12, uste dut hemengo hauek ez gaituztela atsegin.

-Ez XX. Baina, nahiz eta gu ez atsegin, gu hau ezagutzera etorri gare-

nez gero, behintzat bihar gauerarte hemen egon beharko gara.

Zirudienez, Marte aldeko hauek, gure hizkuntzan hitzegiten zuten, baina guk baino bereziago, hau da, jestu arraro batzuez lagunduz. Horregatik, justu justu ulertzen zitzairen.

Horrela, poliki poliki, gau iluna heldu zen, eta Deba guztia lo zegoen, estraterrestreak ere bai, noski.

Baina estraterrestre hauek ez zuten lo oheetan egiten, ez, exerlekue-tan jarrita egiten zuten.

Gaua pasatu zen, eta egun berri bat hasi.

Jendea goiz esnatu zen, baina ez ikastolara joateko, zergatik ez zegoen, puente egiten zelako; baizik eta extraterrestreak ikusteko. Zirudienez, bildur guztia kendu zitzairen.

Goizeko bederatzietakoa jende guztia plaza hartan zegoen, amona zaharra eta beste andra hura ere bai.

-Okulista hark konpondu zidan ondo ikusmena, bai -esan zuen gure amona zaharrak.

-Ba, nik uste dut ihauteriak ez direla garai hontan. eta berriro nago hemen, hoiek nor diren jakiteko -esan zuen andreak.

Baina gure pertsonai arraro haiek, hamarrak arte ez ziren esnatu, baina badakizu nolakoak diren Deba-koak, eta hamarrak arte itxaron egin zuten.

-Nik hoiek irten arte ez naiz mugitzen hemendik, nahiz eta gauerdiko hamabietan irten. -Esan zuen batetik.

Eta horrela, hamarrak arte egon ziren.

Azkenean irten zuten loguraz beterik. Jendea algaraz zegoen, beraiek fresku-fresku zeuden, eta estraterrestreak erdi lo zeudelako.

Bost minutu geroago, martzianoak guztiz esnatu ondoren, hitzegiten hasi zitzairen Deba herriko biztanleei:

-Deba... herriko... biztanleak.

Eta batek esan zuen aho bajuz eta harriduraz:

-Zer esaten ari dira? «Deba herriko biztanleak» esan dute, baina modu arraro batez eta geldioneak eginez.

Beste batek berriz, esan zion:

-Behintzat gure Euskara hizkuntza maitea erabiltzen dute. Ez nekien hauek Euskaraz hitzegiten zutenik.

Eta beste batek arrazoia emanez esan zuen:

-Hau dek hau! Honako hau Eus-



kal Herriko askori adibide bezala jar-
tzeko oso ona da. Euskal Herrian Eus-
karaz dakitenetariko batzuk ez dira
euskaraz mintzatzen, eta estraterres-
trek berri, euskaraz!

Nahiz eta zurrumurru haundi
bat sortu jendeen artean, estraterrestre
hauek hitzegiten jarraitu zuten:

-Gu... hau... ezagutzero... etorri...
gara.

Jendea orduan, interesgarria zela
ikusirik, ixildu egin zen eta arreta
haundia jarri.

-Guk... euskaraz... hitzegiten...
dugu, baina... ez... zuek... bezain... ongi.
Mesedez... ez... barre... egin, nahikoa...
da... guk... euskaraz... hitzegitea.

Eta orduan jendea txaloka eta oi-
huka hasi zen:

-Oso ondo, horrela hitzegiten
da, gora Estraterrestreak!

-Hobe... esanda... gu... Martekoak...
gara... eta... mesedez... Martetarrak... dei-
tu eizaiguzue.

Jendearen artean zurrumurru
ikaragarri bat sortu zan:

-Martetarrak Deban? Guk
«Martzianoak» deitu diegu duten itxu-
ragaitik, baina benetan Martekoak
izango dira?

Denbora bat barru, Debako alka-
teak, ahots sendo eta gogor batez esan
ziren Martetarrei:

-Ulertzen dugu zuek esan nahi
diguzuena, baina zuentzat zer da Deba
ezagutzea?

-Ba... guretzat... Deba... ikusi... eta...
bertako... gauzaren... batzuk... gure...
untzian... eramatea... apaingarri... beza-
la... -hau erantzun zion gure Marteta-
rrak. Eta gero, zuhaitz bati seiñalatuz

jarraitu zuen esanez -adibidez... hor...
dagoen... gauza... hori. Nola... deitzen...
diozue... zuek... horri?

Eta debatairak pentsatzem hasi
ziren:

-Hoiek, lurretik zuhaitz bat har-
tzea nahi dute. Eta etxeak, zelaiak, itu-
rriak eta abar hartzen hasten ba dira,
zer? Ez dut uste hau ezagutzea denik.
Gero Debak ez du emango betiko he-
rri txiki eta polita. Nik uste dut horri
«inbasio» izena hobe etorriko zitzaiola.

Horrela debatairak zerk ihes era-
zi litzaiokeen haiei pentsatzen hasi zi-
ren. Izan zuten hainbat ideia, baina bat
ere ez zen baliogarria. Jendea piska bat
arduratzen hasia zen eta martetarrak
han jarraitzen zuten.

-Zuek zergatik hitzegiten duzue
horrela gurekin? Zuen artean ere ho-
rrela hitzegiten dozue? -galdetu zion
batek jakinduraz beterik.

-Ez... gu... gure... artean... euskaraz...
mintzatzen... gara, baina... zuekin... ur-
duri... jartzen... gara... eta nahiz... eta...
jestu... arraro... batzuk... egin... gure... ar-
tean... dena... jarraiki... hitzegiten... dugu.

-Ah! -esan zuen besteak harridu-
ra kentzen zeukalarik.

Hori esan ondoren, han zeuden
denak ixilpean egon ziren haren esa-
nak pentsatuaz.

Horrela, iluntzen hasi zen.

Bapatean, txakur bat, Martetar
baten ondora joan zen.

-Zer... da... hau? -galdetu zuen be-
rak.

Eta inork ezer esan gabe, txaku-
rrak, hanka igo, eta lasai-lasai pixa
egin zion.

Orduan martetarrak esan zuen:


-Zerbait... bustia... igartzen... dut,
eta... sudurrera... usain... txar... bat... da-
torkit.

Eta gero konturatu zen pixa egin
ziola.

Orduan, martetarra, haserre jarri
zen eta hitz zaratsatu batzuk bota ziz-
kion.

Ondoren, txakurra, zaunka hasi
zen, sekulako iskanbila sortuz.

Eta martetarrak orduan, ondo-
koei bultzatuz, plater hegalarira sartu
ziren esanez



-Goazen hemendik, izaki iletsu,
zaratsatu eta ziztrin horrek denori ha-
rrapatu baino lehen!

Eta izugarritzko zarata eta argi
ikusgarriak sortuz, abiadura handiz,
zeru zabalean desagertu ziren...

Nik dakitenez, orain arte behin-
tzat, ez dira gehiago etorri.

Noiz egingo digute hurrengo
bisita?

Inge Ugalde - 11 urte
(A mailan 1.en saria)


Peregrin

Hau da Peregrin izeneko gizon baten aitortza:

-Ni naiz Peregrin, hainbat eta hainbat zoritxar pasa dituen gizona. Zortzi urte nituen, nik hainbeste maiten nuen ama galdu nuenean; hura, benetan, kolpe handia izan zen niretzat. Ni nintzen anaiaetatik gazteena, hiru anai bait ginen, eta beraiek baztertu egiten ninduten. Aita, berriz, ama hil zenetik mozkor bat bihurtu zen; sarritan nire anaiak eta nik hartzen genituen jipoi galantak. Hala ere, gure aita pertsona zoragarria eta mirezgarria zen, baina hari ere bere azkena iritsi zitzaion. Hiru anaiok bakardadean gelditu ginen; ez genuen inor gure alboan, baina une egokian azaldu ziren

aldiz, bizkarrean kolpetxo batzuk emanaz animatzen ninduen aurrera jarraitzeko. Urteak aurrera zihoazen, gu hazten joan ginen eta osaba-izebak zahartzen. Izebaren buruan elurra egin zuela zirudien eta osabaren bizkarra zumea bezala okertzen joan zen. Hala ere osabak, jakintsua izaten jarraitu zuen; prestua ez izan arren. Nik hamazortzi urte bete nituen iadanik eta anaiek bazituzten hogeita hogei-talau urte. Eskolatik ez nuen fruitu askorik atera, nere anaiek, berriz, lanpostu bikainak lortu zituzten. Nik ez nuen itxaropen handirik horrelako lanik lortzeko.

Halako batean ohean mengoela, nere izenarekin pentsatzen jarri nintzen.



gure osaba-izebak gu jasotzeko prest. Gure izeba oso pertsona zoragarri eta bihotz onekoa zen. Eskolara bidali gintuzten, beraiek ez bait zuten seme-rik. Etxea oso handia zen eta gure osaba-izebak dirudunak. Hala ere diruak ez zion ematen izebari irribarreia eta poza, harek seme bat nahi zuen.

Askotan ikusten nuen nire izeba negarrez, sukaldeko hortzinari eutsika, baina bazirudien ni ikusten nindue- nean bere aurpegian irribarre zabal bat marrazten zela. Osaba, gizon pres- tua eta jakintsua zen eta noski, buru- zoila. Harena zen gu eskolara bidaltze- ko ideia, hala ere izebari ez zitzaion axola ni etxean gelditzea, baina geroa- go onartu zuen bere senarraren pro- posamena.

Gauzak aldatu egin ziren, bai ni eta nere anaientzat. Eskolan nire anaiak ni baino hobeagoak ziren eta nik ez nituen ateratzen beraiek beza- lako emaitz onik. Lotsa ematen zidan txartela erakustea osabari, alde batetik nire anaiek langileagoak zirelako eta bestetik nire osaba gizon jakintsua, ze- lako, eta sarritan mintzen nuen nere eskolako emaitzekin, geroz eta bel- durgarriagoak bait ziren. Nere izebak

tzen, «Peregrin». Zer esan nahi ote du? Berehala konturatu nintzen erdaraz, «peregrino» esan nahi zuela eta hitz hori hiztegian begiratu nuen:

«Peregrino»: Que viaja por tierras extrañas.

Nire buruan argi bat piztu zen, i- txaropenaren argi bat, eta nere begien aurrean atek zabalduak zeuden. Gau hura oraindik gogoan dut, nire bu- ruan markatuta. Begiek dizdira egiten zidaten eta nere aurpegia irribarré za- bal batetan murgildu zen. Nere ahotik «mentura» hitza ateratzen zen sarritan eta gogoz ahozkatzen nuen. Nire poza ezin zen sartu gela txiki hartan, hain pozgarri nintzen! Nere izenak ekarri zidan irtenbidea. Askok eta askok pa- rre egiten zidaten nere izenagaitik, eta neu ere lotsatu egiten nintzen. Gaur egun ez daukat lotsatu beharrik. Guzti harek asko nekatu ninduen eta ohe gainean etzan nintzen ume zintzo bat bezala. Gau hartan nahiko amets egin nuen.

Goizean oilarrak abestu baino le- henago jeiki nintzen, pozaren-pozez sekula baino lasaiago atera nituen na- giak nere logela barruan. Lehioa ireki eta gogoz hartu nuen arnasa. Jantzi eta

kanpora atera nintzen nire eguneroko korrialdiak egitera. Geroago etxera joan nintzen gozaltzeko prest. Han ikusi nitun denak mahai inguruan, nere zain. (Lehenbaitlehen) Lehen bait lehen kontatzea izango zen hoberena eta gizon garrantzitsua banintz bezala hasi nintzen kontatzen hartu nuen erabakia. Denak isilik geratu ziren eta isiltasuna hautsiz nire osaba txaloka hasi zen. Oraindik gogoratzen ditut haren hitzak:

«Mutil, harro nago zutaz». Hitz haiek nire bihotza bigundu zuten eta negarri eutsiz osabari eskua eman nion, gizon nintzela erakutsiaz.

Hurrengo egunean hasi zen mentura. Geltokira joan eta trenaren barnera sartu nintzen eta bertako serlekuetan eseri. Pentsati gelditu nintzen, une batzuetan atzera egiteko gogoia ematen zidan, baina banuen zerbait nere barnean uzten ez zidana. Aurrean gizon buruzoil bat nuen, nire osaba gogoratzen zidan. Begiak malkoz beterik nituen. Treneko atek itxi egin ziren zarata handi bat ate- ratzen zutelarik.

Trena gelditu zen eta ni jeitsi. Arrotz bat nintzen ni lurralde hartan. Abere isuak bezala begiratzen nin- duen jende hark. Kale txakur bat ematen nuen, ez nuen norabiderik, galduta nenbilen. Halako batean aur- kitu nuen hostatu bat! Hiri handia zen, baina hala ere ez zen NewYork bezalakoa.

Gaua iritsi zen eta ohean luze e- tzanda nengo; pentsati. Bazirudien beste «galaxia» batetan mengoela. Nere amets gozoa neskata lirain eta polit batek moztu zuen. Biok alkarri begira gelditu ginen, isiltasunean. Begi ede- rrak zituen, gau hura bezain beltzak. Oraindik horrela gogoratzen dut nire emaztea izatera pasa zen neska, lehen menturako aurkikizunik bikainena. Handik aurrera berarekin egin nituen beste bidai guztiak, Espainia, Frantzia, Italia, Afrika osoa, Amerika... Horrela iritsi naiz gizon ospetsu eta zoriontsua izatera. Orain gizon zaharra naiz eta beste mentura baten zain nago, nere amak, aitak, osaba-izebak eta emazteak pasa duten mentura baten zain: he- riotza. Nere birikek egunen batean arnasa hartzeari ukatuko diote, nere begiak urteen pisuarengaitik itxi egin- go dira, bihotz zaharra nere gorputz barnean geldituko da eta akabo. Pe- regrin izena airean urtuko da eta hai- zeak urrun eramango du, nik, piztu nuen menturazaletasuna itzali egingo da eta ni, idesagertu!

Peregrin, 1985-eko Otsailaren 27-an hil zen. Berak nahi zuen mentura berria lortu zuen, baina oraingoz bere izena ez da desagertu eta ezta ere berak sortutako zaletasun hori.

Itziar Urteaga Aizpurua - (B mailan 1.en)

Xaporen Ametsa

Gabeko hamaika-t'erdia dira, eta egongela hontan Xapo lotan dago. Ohetik jaiki zen hurrengo egunerako debereak prestatzera eta nahi gabe lo hartu du.

Xapo, mutil zintzo eta trebea da. Oso maitatua bere etxean. Eskolan oso azkarra da eta ona lagunekin. Xaporen aita handia eta harroa da, eta bera etorri orduko dena prest edukitzea gustatzen zaio. Bere emaztea, ordez, oso emakume ona eta jatorra da, humila eta zintzoa...

Xapok ba dauka arreba bat, lau urtekoa eta amaren antzekoa; begi urdinak eta ile kuskur-kuskurra dauka.

Mutikoa ordea aitaren antzekoa da: harroa, eta ilea beltz-beltza dauka, eta esan dugun bezala bere etxeko logelan lo hartu du.

Oso etxe polita dauka eta lorategi zoragarri bat.

Xapo ametsetan ari da, eta oso amets polita da, bere laguna-ekin jolasean ari da.

Orduantxe Xapok hots arraro batzuk aitzen ditu sukaldean, eta berehala esnatu eta jaiki da sukalderantz abiaturik, eta poliki-poliki atea erdipurdizka ireki du.

Han ikusi zuen gauza sinistezin bat: Sukaldeko tresna guztiak bizia hartu zuten.

Xapok ezin zuen sinistu bere begiak ikusten zutena:

Sardezka guztiak, goilare, burduntzari, ganibet, eta tupinak mugitu egiten ziren...

Ez mugitu bakarrik, jan dantzan egin eta abestu ere bai.

Sardezkak, goilareak, eta ganibetak, oso ongi dantzatzan zuten eta tupin eta burdintzariak abeslari profesional batek baino hobeto abesten zuten.

Batzuek bertsoak abesten zituzten:


Gizonak ez dakite
guk dakiguna.

Objetu guztiak daukate
bizimodu berdina

Bertso hauetan nahi dugu
gizonak jakitea...

Tresna denak daukatela
bizi desberdin bat.

Sardezkak eta goilareak bere artean bizketan ari ziren.



-Emango al didazu murin pote hori?

-Bai, noski baietz -erantzuten du goilareak.

Etxe honetan bizi diren pertsonak guk beraiena jaten dugula konturatzen ba dira, zer egingo luketen? -esan zuen sardezka.

-Ez dira konturatuko -dio goilareak.

Xapo oraindik ere ate atean zegoen; ametsetan ez zegoela sinistu nahiean zebilen.

Baina bere begiak ikusten zutena egia zen.

Egun guztian berak erabili zituen tresnak han zeuden, orain, bizirik, eta edozein gizon bezala jan eta edaten.

Sukaldeko tresna guztiak gautxoriak bezala, egunez lo eta gauez esna egoten dira eta Xapo horretaz orain ohartu da.

Tresna batzuek aureskua dantzatzan zuten, eta beste batzuek bals polit bat.

Sukaldeko irratia erabiltzen zuten musika jartzeko.

Arraroa zen benetan Xaporen aita eta ama ez konturatzea:

Hauxe zen Xaporen pentsamentua: -Ni ez nago ametsetan, nire aita eta nire ama egongo balira hemen ikusiko lukete.

Geratuko naiz, zer ordutaraino tresnak egoten diren esna ikusteko. Eta noiz esnatzen diren.

Hartaka bihar gauean erakutsiko diet nire gurasoei, ordurarte, ez dute sinistuko eta.

Nik nahi nukena da berriz ez lo hartzea.

Xapok nai zuena zera zen: Tresnak oparitzen zioen funtzioa ikustea.

Xapo asperturik zegoen han egoten eta oheratzea erabaki zuen.

Urrengo egunean, jaiki zenean, gaueko abenturaz gogoratu zen. Eta galdetu zion bere bururari:

-Ametsetan egon nintzen, edo ikusi nuena egia zen?

-Bai, amets bat izango zela uste dut...

-Baina egongelan lo hartu nuela egia da...

-Baita ere sukaldean joan nintzela hots arraro horiek entzun eta gero...

Seguraski katuren bat izango zen eta nik hain logure handia neukanez ez nintzen konturatu.

Baina Xapok ez zekiena hau zen:

Ez zela amets bat baizik errealitatea. Baina hori gizonek ez dute sekula ere jakingo.

M.^a Eugenia Ulazia Osa
(B mailon 2.n)

Josuren Istripuaren Iturria

Nire gelan sartu naiz, ez dut ezer ere egiteko gogorik, ni beti, edo behintzat ia beti ulertu nauen lagun bakarria hilik da.

Goizeko hamaika t'erdia dela gutxi jo ditu eleizako kanpaiak; nahiz eta bederatziretarako jeiki, berriro ohean sartu naiz. Irratia dut lagun, bere musikak mundu hontako gauzak ahanzten laguntzen dit tarteka-tarteka, baino berriro, konturatzen naizenean, gauza berbera bururatzen zait: Josuren gorpua, zerraldo barruan, lo balengo legez, bai eta horrelaxe da, bera lo dago, esnatuko ez den amets etengabe batean.

Baten baino gehiagotan pentsatu izan dut gau honetan berari laguntza egitea ez litzatekela burutapen txarra izango. Baina nire ustez, nahiz eta horrenbeste buruhauste eta arazo izan, oraindik mundu honetan bizitzeak merezi du.

Dagoeneko ordubiak dira, konturatu gabe lo hartu dut, jantzi eta berehalaxe Josuren etxera noa. Ez daukat bazkaltzeko gogorik, eta badakit Josuren sendiak ere ez duela jateko gogorik edukiko. Etxeko txikiena izan da, eta nahiz eta hemeretzi urte izan, amak beti uste izan du haur bat zela. Bere ama izan da gehien samindu dena heriotze honekin, guztiok asko sentitu izan dugun arren.

Arratsalde hau beti gogoan izango dut, uste dut es dudala inoiz ikusi nire burua gaur hainbat unkitua. Arantza, Josuren ama, guztion artean geizkien zegoena uste izan arren, orain konturatzen naiz bera baino egoera tamalgarriagoan aurkitzen naitela.

Gaurko mezak ez du orduerdi baino gehiago iraun, baino amaigabea iruditut zait. Une txarrena kanposantuan jasan dut; zerraldia ehortzi duten momentuan. Josuren anai zaharrena eta biok, besarkaturik, negarrez, amarik gabe gelditu den haur bat genirudien.

Josu eta ni, elkarrekin irten izan gara oinarte, ia bi urte generamatzen, hasieran, orainarte dela hiru hilabete arte, dena ongi joan izan zen. Beti etortzen zitzaidan unibertsitatera bila eguerdian, buelta bat ematen genuen, eta gero etxeraino laguntzen ninduen. Aste buruetan, ni Zumaiara etortzen nintzen eta bera Azpeitiara. Karneta atera zuen arte. Igandetan bakarrik ikusten ginen, Zumaiara etorri eta niri deitzen zidan laurak aldean. Batzutan pote batzu hartu ondoren «Taosa»-ra joaten ginen, eta beste batzutan Zaurterako autobusa hartu eta han igarotzen genuen arratsaldea. Karneta atera zuenean, berriz, egunero ikusten ginen, Donostian beti bezala eguer-

dietan, eta asteburuetan berriz, bai larunbat eta bai Igandetan. Lehen baino urrutiago joaten ginen: batzutan Lekeitiora, beste batzutan Ondarruko «Venezia»-ra, bestetan Elgoibarrera...

Gure erlazioak, oso ongi zihoazten, batean bere etxera eraman ninduen bere gurasoak ezagutu nitzen. Beste batetan berriz, neu izan nintzen nere etxera ekarri nuena nere sendia ezagutu zezan. Nere taldeko lagunak ongi erortzen zitzaizkion eta baten baino gehiagotan izan ginen baraiekin herri askotako festetan, Azpeitiako San Inazioetan, bere lagunak ezagutu genituen astea izan zen hura, oso jatorrak ziren denak, eta gogoratzen dudanez, nire taldeko mutil bat, bere taldeko mutil batekin «enrroilatu» zen, Itziariko Kopraixetara ere joan ginen urte hartan, Itziar nahiz eta herri txikia izan hango festak zoragarriak iruditut zatzaizkigun guztiori, Debako San Rokeak, berriz, inoiz ikusi ditudan jai zoragarrienak iruditut zitzaizkidan, eta inoiz ez nituen igaro urte hartan bezain ongi Zumaiako San Pedroak.

Baina dela hiru hilabete, dena aldatu zen, Josu ez zen lehen bezalakoa, nik lehenago egiten nituen gauza asko, nahiz eta zela gutxi ongi iruditut, orduan dena geizki iruditzen zitzaion. Mutil batekin hizketan ikusten baninduharekin zerbait gehiago nahi nuela uste izaten zuen, lagunek hilea hartzen ziotenean dena gaizki hartzen zuen, eta horrelako gauza mordo bat. Hura ez zen nin baino gehiagotan galdetu izan nion zer gertatzen zitzaion, eta bere erantzuna beti berdina izanten zen: Ez zitzaiola zer gertatzen, ea zergatik itauntzen bion beti berdina.

Josu gero eta bitxiago portatzen hasi zen. Azkeneko oporraldietan, Gabonetakoak, noski, bera bere sendiarekin Suizara joan zen eskiatzera, handik etorri zenean ez zidan kasu handirik egiten, eta inoiz bezala aurkitzen zen. Berak, ez zeukan edateko ohiturarik, baina Suizatik etorri ondoren larunbatero mozkortzen zen, eta lagunei edozer gauza esaten zien. Nik, banekeen zerbait gertatzen zitzaiola baina berak ez zuen gertatzen zitzioren gauzak hitzegiteko asmorik.

Dela hogeit bat egun, Suizatik etorri eta handik hamar egunera, ea niregatik zegoen horrela galdetu nion. Berak baietz erantzun zidan, Suizan beste neska batekin egon zela eta ezin zuela nire presentzia jasan, esan zidan. Gure erlazioak eten genituen, baina handik bi egunetara apal-apal etorri zitzaidan dena gezurra zela esanaz. Ni oso geizki sentitzen nintzen une hartan asko maite bait nuen, eta ez zela neska harekin ibili kontatu zidanean,

dena bakarrik egoteko denbora behar zuelako esan zidala erantzun zidanean, negarrez besarkatu nuen eta berak maite ninduela ihardetsi zidan.

Berriro lehen bezala hasi ginen, bera ez zen hain zakarki portatzen baina gauza batek harritzen ninduen: Buruko minez asko kexatzen zen, eta ordurarte ez zen inoiz kexatu inongo minez, bera ez bait zen kexatzen mina oso larria ez bazen.

Dela gutxi, Donostiako auzo batetan jaiak zirela eta, ostegun batetan parranda egin genuen eta hurrengo goizean oheratu gabe, klasera joan nintzen. Josuk, eguerdian bila etorriko zitzaidala esan zidan, baina betiko orduan ez zen agertu eta kezkatu egin nintzen, bera ez bait zen inoiz berandu heldzen.

Gorka, Josuren klaseko lagun bat, igaro zen nire aurretik eta Josutaz galdetu nionean, klasera ez zela agertu erantzun zidan. Nire kezka gero eta handiagoa zen; Josu nirekin batera etorri zen goizean unibertsitatera, eta oso arraroa egiten zitzaidan klasean ez agertzea, eta gainera niri deus esan gabe etxera joatea oraindik arraroagoa iruditzen zitzaidan.

Bera bizi zen etxera joan nintzen, eta han inork ez zekien ezer berari buruz. Malenek, bere etxean bizi den neska bakarra, ez zegoela ongi eta etxean gelditu zela goiz guztian erantzun zidan, baina han ez zela Josu ezertarako agertu.

Azkenean, bazkal ondoren, kafea hartzera joaten ginen tabernan sartu nintzenean, hantxen aurkitu nuen, eskuak burua heldzen zituelarik.

Ez zela ongi aurkitzen esan zidan, eta goiz guztia han igaro zuela jakin izan nuen gerotxeago. Bere buruko minak gero eta gogorragoak zirela, eta gero eta sarriago etortzen zitzaizkiola esan zidan ia negarrez.

Sendagilearengana joatea proposatu nion, eta nik laguntzen banuen berarengana joango zela esan zidan baina lehenago bere amari ezer ez niezaion konta eskatu zidan, bestela asko kezkatuko zela eta.

Arratsaldean ez ginen klasera joan, laurak aldean beste kafesne bat hartu eta sendagilearengana abiatu ginen.

Elkarrekin sartu ginen kontsultan, eta sendagileak radiografia batzu atera ondoren, kasua beretzat baino gehiago zela eta, espezialista batengana bidali gintuen.

Residentziara jo genuen eta han ni ezin izan nintzen kontsultan sartu. Bi ordu baino gehiago eduki zuten Josu gela barruan, eta azkenean bata zuriz jantzirik gizon hile zuridun bat etorri zitzaidan ea Josuren ahaidea

nintzen galdetuaz. Ezetz ihardetsi nion, baina bere lagun mina nintzela esatean, berdin zitziola esan zidan. Sendagileak, Josuk buruan tumore bat zeukala ezagu arazi zidan, eta gainera tumoreak buruko zati oso garrantzitsua dena hartua zedukala ere esan zidan. Ebaketa bat egin zitekela zela hilabete bat ehuneko zazpiko itxaropenez, baina orduan, jadanik oso berandu zela arazo hari irtenbidea emateko eta, egin zitekeen gauza bakarra, bere lagun guztien eskuetan zegoela zela: Ahal genuen guztia egitea berak zeukan gaisotasuna konponbidegabekoa zela ez jakin araztea zela esan zidan. Niri, nigarrak irtetzen zidan, baina sendagileak ez zidan utzi nigarrak egiten, Josu orduantxe irten behar bait zen gelatik, eta ni nigarrez ikustean, zer bait susmatuko zuelako.

Josu itxura onez irten zen gelatik, eta residentziatik irten baino lehen sendagileak pastila batzu eman zizkion bi ordutatik bi ordutara hartzeko.

Pastila haiek buruko mina ongi kentzen ziotela eta, askoz alaiago agertu izan zen azken egun hauetan. Hasieran, dena oso ongi zihoan, bera ez bait zen konturatzen gaiso zegoela.

Lehen bezala portatzen hasi zen, eta nire ustez arazo guziak ahaztu zitzaizkion. Asterketetan ere ez zegoen inoiz umore txarrez, eta zioenez ongi ari zen azterketak egiten.

Asteazkenean azterketen emaitzak jarri zituzten unibertsitatean; Josuk guztiak gairitu zituen, nik, berriz, fisika utzi nuen. Hala ere, pozik aurkitzen nintzen fisika besterik ez bait nuen utzi.

Ostegunean, guztiok jakin izan genituen notak, eta taldekoekin afari bat egin genuen. Oso ongi igaro genuen, eta inork ez zuenez etxera joateko gogorik, eta ez eta asmorik, kaLEAN gelditu ginen goizeko zazpirak arte.

Ostiralean, ez ginen klasera joan, eta eguerdian denok abiatu ginen baikoitza bere etxera.

Josu, Aintzane, Jon eta ni beti elkarrekin itzultzen ginen, eta ostiralean beste ostiral guztietan bezala egin genuen. Aintzane, Zarautzen gelditzen da, eta Jon eta ni, berriz Zumaian. Zumaian jeisterakoan, Josuk giltza bat eman zidan. Ea zerena zen giltza hura galdetu nion, eta zera erantzun zidan: «Bihar jakingo duzu». Asko harritu zitzaidan Josuk hori esateak, baina ez nion kasu handirik egin erantzun hari, ez eta bueltarik eman. Musu bat eman eta gaurko geratu ginen, atzo lanpetua

aurkituko zela eta ezin izango zela etorri esan bait zidan.

Baina, etxean lan batzu egiten nengoenean, zazpirak aldean, telefonoak jo zuen. Josuren ama zen telefonoz hitzegiten ari zitzaidana, eta aho-tsa urduri xamarra zeukala konturatu nintzen. «Maite -esan zidan-, zu al zara?». Baietz erantzun nion, eta ea zer nahi zuen itaundu. Josuk istripua izan zuela etxerako bidean esan zidan, Arroa eta Zestoa artean. Zer moduz aurkitzen zen galdetu nion, eta momentuz ez zekitela sendagileek bere egoera esan zidan, baina ez zela ongi aurkitzen.

Berehalaxe agertu nintzen bere etxean, Arantzak deia egin zidanetik ez zen orduerdi baino gehiago igaro, Azpeitian aurkitzen nintzenean. Etxera heldu nintzenean, Josuren anai zaharrenak ireki zidan atea. Bere begiak busturik zeuden, eta berehala konturatu nintzen ez zela gauza onik gertatu. «Josu bere logelan dago», besterik ez zidan esan. Bere logelarentz abiatu nintzen. Bertan zeuden bere gurasoak eta baita beste bi anaiak ere. Bere ohera urreratu nintzen, eta Josuk eskutik heldu, eta besarkada bat eman ondoren, egunkari bat eskuratu zidan, niretzako zela esanaz. Gero, anaia, gurasoei eta niri gauza bat esan zigun: «Badakit hiltzorian nagoela, baina pozik hil behar naiz, eta ez dut nahi zuek nigarrak egitea nire heriotzean, baizik eta ni bezain alai aurkitzea». Sendagileak, mesedez atsegin piska bat har zezan esan zion, baina Josuk hizketan jarraitu zuen, txikitandik gogoratzen zituen egun alaienetan zer gertatu zitzaion kontatuaz. Bera pozik aoratuaz, eta beraietaz jarraitu zuen hitzegiten azken arnasa hartu zuenerarte. Hil zenean, bere aurpegian, irribarrea igartzen zen. Handik ordubetera zerraldoa ekarri zuten, eta jantzi ondoren, bertan jarri genuen.

Hil zen unean, nik ez nuen negarrik egin, eta uste dut nigar egin zuen pertsona bakarra bere ama izan zela. Ezin nuen sinetsi bera hilik zegoela, eta begira-begira gelditu nintzen lau bat ordutik lotan zegoela pentsatzen.

Ehortzi dutenean, berriz, konturatu naiz ez dudala inoiz berriko ikusiko, eta orduan jabetu naiz gertatu denez. Denak amets gaizto bat dirudi, baina ez da horrela, eta hemendik aurrera, bera gabe antolatzen ikasi behar dut.

Orain, Atzo Josuk eman zidan egunkaria irakurtzea pentsatu dut. Lehenengo orrian zera dio:

Maite, egunkari hau, badakit goizo edo berandu zuk jasoko duzula, bertan

jartzen dituen gauzak jakitzea nahi bait dut. Giltza hauetako egun batetan jasoko duzu.

Donostian 1982'ko Otsailak zazpi Josu

Dirudienez, Josuk egunkari hau dela hamabost egun hasi zuen ez bait dago egunero idatzia. Urtarrilean gertatutako gauzen laburpen bat eginda dauka, buruko minen eraginez egindako gauzak aintzat hartuz. Baina laburpen hau eta gero, egunero dago idatzia.

Otsailak zazpi, ostiralean hasi zen idazten, eta zera jartzen du:

«Badakit oraindik Maitek ez dakiela ni buruan daukadanaz jabetu naizela, eta ez jabetzearen itxaropena daukat, ez bait dut nahi bera sufritzen egotea nigaitik».

Lerro hauek irakurtzean malkoak irtetzen dit, baina ez dut nahi gelditu zer gehiago jartzen duen jakin gabe.

Beste orri guztietan, pozik dagoela adierazi nahi duela uste dut. Azkenengo orrialdean berriz harrituta uzten nauen gauza bat jartzen du:

Zumaian, 1982'ko Otsailak 21

«Oraintxe eman diot Maitei nire egunkariko giltza, orain Saioan aurkitzen naiz pote bat hartzen egunkaritean. Jadanik sendagileak eman zizkidan pastilek ez didate buruko mina kentzen, gero eta gazkiago aurkitzen naiz, eta istripu batetan pozik hiltzea uste dut dela buruko minez ezin jasanik baino hobeagoa, eta pentsaturik daukat nola eduki istripua inork ez dezan pentsa nahi dudalako hil naizela. Orain, bostgarren potea hartzen ari naiz, eta hil ondoren autopsiaren bat egiten badidate, mozkorra nengoelako ukan dudala istripua uste izango dute.

Baina zuk bakarrik jakingo duzu istripuaren iturria, zugaz konfidantza handia bait dut, eta badakidalako ez diozula inori esango zein izan den nire istripuaren iturria.


Maite, heriotze honekin mindu bazaitut barka iezadazu, baina nire ustez era hontara gutxiago sufrituko duzu ni buruko minez jasan ezinik ikusita baino. Gaur arte igaro arazi dizkizudan une txahar guztiak barkatzea eskatuko nizuke, baina badakit hori gehiegi dela, nahiz eta nik nahigabe egin. Azkenik zera esan nahi dizut, maite zaitudala, eta ez dudala inoiz zu bezain neska lehial eta jatorra inoiz ezagutu. Eskerrikasko, Maite, guziagatik».

Josu

Mertxe Prat Mendizabal


11 urte

(D mailan 1go saria)



PROZESIOA PASATZEN DENEAN
MANIKIA SARTUKO DUGU HILONTZIAN...

ORAIN!!



IA "TIPOA" NON HILOBI RATU DUTEN
AURKITZEN DUGUN ETA MANIKIA
HARTUKO DUGU.



GERO KAN
PANDORRETIK
IRTENGO
GARA



ZURE SENARRAREN LAGUNA
GINEN ETA NONHILOBI RATU
DUTEN JAKIN NAHI DUGU
LORAK ERAMATEKO



EZ DUTENHILOBI RATU
ERRAUTSI DUTE
ETA GAUZA ARRARO
BAT GERTATU OMEN
ZEN.



Ez dakit zer tripa edo zerez
EGINDA ZEGOEN NIRE SENARRA DAINA
ERRETZERAKOAN, ERRETZAILE GUZTIAK
"FLIPATZEN" ARI ZIREN ETA, NIK,
BADA GEPADA ERRAUTSA
SORA BOTA ZUEN.



ZURE SENARRARENA ASKO
SENTITZEN DUGU... AGUR

AGURETA
MILA ESKEK



JASAU EZINA ZEN...
BENO, DENA DEN, DROGA TXARRA
OMEN DA OSASUNAREKONBI DATU
DIZUT GARAGARDO BAT HARTZERA.



ANAIERA.

A EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Yo no sé euskera pero... orain ikasten ari naiz eta oso zaila da, baina... con más fuerza lo intento.

Me he llevado muchos palos, ami... Iba a decir amigos, pero no sé hasta qué punto sería cierto y a cuantos de vosotros abarcaría; en otro momento cuando tenga más claro qué es lo que pretendéis, utilizaré esa palabra o la dejaré definitivamente de lado.

En uno de los puntos de una hoja que cualquiera que llegó a las manos de una compañera decía:

«No te avergüences de hablar euskera delante de gente que no lo entiende...» ¡estupendo! dije, allá cada cual con su conciencia; pero me siguieron leyendo...

«Que se avergüencen ellos por no saber hablarlo». No, no, sólo me avergüenzo de mí, que intento ser un vascoparlante, aunque voy de palo en palo y cada vez más fuertes, sino que siento vergüenza ajena por vosotros, capaces de decir tantas frases marginales... Os equivocáis, y sólo hablo de uno de los puntos de ese cacho de papel, porque ninguno de ellos merece el más mínimo comentario, no son dignos de ello, sólo que me sentí ofendida y necesitaba haceroslo saber, NIK EUSKE-RAREKIN JARRAITUKO DUT, sólo espero que en vez de marginación me déis un poco de apoyo.

Carlota

auto-reparaciones

DEBA, s.a.




Estos son nuestros poderes

SERVICIO OFICIAL



MERCEDES-BENZ

SERVICIO OFICIAL



SERVICIO BOSCH



PEGASO

«MARCAS de auténtico prestigio que confían en nosotros porque somos profesionales y tenemos a disposición de nuestros clientes un gran equipo humano y material».

kaioa

Barrio Itxaspe, s/n.º
Apartado 28 - Telex: 38468 ICIA E
Teléfs. 601589-601547-601548-601483

DEBA

LIBURU INTERESGARRIAK DEBARRENTZAT

Titulua: EZ DA PALE EGITEKO OLDUA.

Egilea: Alfonso Sastre.

Itzulpena: Goaz taldea.

Argitaletxea: Susa. Antzerki saila 5.a.

Ezaugarriak: 350 pta. 56 orrialde. Debako emanaldiko argazkiak.


Carabanchelgo kartzelan idatzi zuen Alfonso Sastrek antzerki labor hau. Lana erdaraz idatzi zuen, eta beldur zen bera bertan ageri den argot madrildar hori euskaratzerakoan maskalduko ote zen, baina Goaz antzerki taldekoek dioten bezala, ez da halakorik gertatu. Antzeslana Cuba Espainiako kolonia zen garaian girotzen da. Gizakiaren barne arrazakeria salatzen du erabat txiste eta umorearen bidez, oso interesgarri erizten bait zion Alfonsok egoera hori motibatzeari. Denbora guztia barrez pasa duen ikusleak barre horrengatik lotsa sentitzea litzateke antzerkiaren helburuetako bat.

Eta hala da zinez, guk barrea baino, askotan negargurea senditu baitugu. Vallecasko bi madrildarrek txinatar gaizkile bat kontu egin behar dute borrareroaren eskuetara eramane arte, baina bidean hanka egiten die txinatarrak, eta borrareroari norbait eramane beharrean gertatzen direnez, beste txinatar errugabe bat harrapatzen dute lepoa egin diezaioten, berek berekikoak kito uztearren. Obra barrena, txinatarra isilik ageri da denbora guztian, pertsona izakera ere kasik ukatzen zaiolarik, latzak dira gertakizunak beren umorean ere, txinatarra eginbide bat besterik ez da ballekanoentzat, animalia batek baino gehiago balio ez duelarik. Barrearen ondorengo samina sufriarazten duen obra dugu Sastre zaharrena.


Goaz antzerki talde debarrak antzesten du egunotan lana Euskal Herria guztian gairi (Deban, Zumaian, Soraluzen, Usurbilen, Santurtzin, Urruñen, Iruñean, Zeanurin, Oiartzunen, Ondarroan, Elgoibarren, Amoroton, Lazkaon...). Susatarrek euskal antzerkiari eginikako mesedeetariko bat argitarapen hau ere.

Ez da pale
egiteko oldua

Alfonso Sastre / «Goaz» taldea



EVSKAL HERRIKO KONDAIRAK JOAN B. ARAKISTAIN EK BERE "TRADICIONES VASCO-CANTABRAS" LIBURVAN JASOTAKOAK



elkar - debako kultur elkarte

Titulua: EUSKAL HERRIKO KONDAIRAK.

Joan B. Arakistainek bere «Tradiciones vasco-cántabras» liburuan jasotakoak.

Egilea: Joan Benanzio Arakistain.

Itzulpena: Lukas Dorronsoro.

Grabatuak: Jose I. Treku.

Argitaletxea: Kultur Elkarte / Elkar.

Ezaugarriak: 1.200 pta. 222 orrialde. istorio guztiak Deban jasotakoak dira.

Iragan mendean bizi izan zen Joan B. Arakistainek euskal herri-ipuiak bildu zituen, «Tradiciones vasco-cántabras» izenez atera zirenak. Debarra izaki, KULTUR ELKARTEAK hauek euskaratu eta argitaratzea erabaki zuen, gaztelaniatik euskararako itzulpena Lukas Dorronsorori aginduta. Iragan mendean moda erromantikoak herri-literatura bultza zuenekoak ditugu ipui hauek. Istorioak Deban bertan jaso omen zituen Arakistainek. Kritikok go-raipatu dute Lukas Dorronsororen itzulpen freskua. Baita ere Jose I. Trekuren grabatu zainduak. Ipuiek «Gau-illa»; «Urka-mendi»; «Irarrazabalgo hormarteratua»; «Hiru uhinak» eta «Otoiztegiko irulea» dute izena.

Argiak

SECCION DE CHISTES

Está el Sr. Obispo de la Diócesis visitando el convento de clausura de las hermanas Clarisas y la Madre Superiora le está enseñando las distintas dependencias.

-Mire padre, éste es el huerto donde plantamos las verduras que comemos; ésta es la cocina; esta la capilla.

Y el Obispo:

-¡Ah! muy bien. Muy bonito.

Al final le enseña la sala de estar y le dice:

-Mire, aquí es donde cantamos, Sor Pilar toca el órgano y, en fin, nos relajamos un poco todas las noches antes de ir a dormir.

En esto, el Obispo se da cuenta de que encima del órgano hay un condón, y no puede dar crédito a sus ojos. ¿Cómo es posible, en un convento de clausura, un condón?

Y le dice:

-Oiga Madre ¿y esto qué es?

-«Pues nada, un invento extraordinario. Estaba Sor Inés plantando lechugas al lado de la tapia y entre la tierra encontró una cajita que contenía esto dentro. Leímos unas instrucciones que decían: COLOQUESE ENCIMA DEL ORGANO PARA EVITAR ENFERMEDADES. Así lo hicimos y desde entonces Padre... Ni un catarrito, ni un catarrito.

Sube un viejo carpintero al cielo y habla con San Pedro:

-¿Sabe? es que yo estoy buscando a mi hijo.

-Pero aquí hay mucha gente. Será difícil que lo encuentre.

-No, pero mi hijo es muy famoso y...

En eso, aparece Jesucristo por allí y, de pronto, grita emocionado echando a correr:

-«Papá, papá».

Y el carpintero, más emocionado todavía, exclama:

-¡Pinocho!

Estaban una vez Jesucristo y sus apóstoles, y éste dijo:

-Mañana vamos a hacer penitencia, así que preparaos unas buenas piedras que subiremos a lo alto de un monte.

Al día siguiente se presentan los apóstoles con unas moles de piedras que tuvieron que sudar la gota hasta subir la cima del monte. En cambio el vivillo de Judas se presentó con una piedra vulgar y corriente, subiendo cómodamente sin sudar ni gota.

Cuando llegaron a la cima, Jesucristo les dijo:

-Ya que habéis hecho una buena penitencia, que cada piedra que habéis arrastrado cada uno de vosotros, se convierta en pan. Por lo que todos los apóstoles saciaron su hambre, menos Judas que tuvo que conformarse con un panecillo pequeño.

Pasado un mes Jesucristo les dijo: Pasado mañana volveremos a hacer penitencia. Preparaos igual que el mes pasado para ir al monte.

Los apóstoles se presentaron con unas piedras similares a las de la vez anterior. En cambio Judas se presentó con un pedruscón que no lo podía casi mover y pudo subir a la cima del monte a trancas y barrancas.

Cuando llegaron al monte, Jesucristo les dijo:

-Como ya hemos llegado y habéis hecho una buena penitencia, ya podeis tirar las piedras, que hoy he traído bocadillos.

Está el Director General de locos dando vueltas por un manicomio y ve que todos los locos están jugando al fútbol, otros haciendo footing...

-¿Tú quién eres?

-Yo Diestéfano.

-¿Y tú?

-Maradona.

De repente ve a un tío apoyado en un árbol con las manos en los bolsillos. Extrañado le pregunta:

-¿Y tú quien eres?

-Yo. Fútbolín.

-¡Qué cojones! Demuéstramelo.

El loco se abre la bragueta y le dice:

-Echa un duro y verás como salen las bolas.

MPA.



BAR

kaioa

iGARZA




«Prueba nuestra amplia variedad de pinchos.

Y sobre todo, la especialidad de la casa:

Champis a la plancha».

c.Ostolaza

deba



Gaizki atera zaigu

DEBA Negua alean:

-ANASTASIO ARRINDAekin egindako elkar-hizketan, 45 orrialdean, parrafo hau falta da:

Fuera de lo que ha supuesto su vocación y actividad sacerdotal a lo largo de tantos años, su inclinación, su especialidad han sido los Estudios Vascos. En ese sentido y desde que siendo un joven seminarista en Vitoria contactara con los conocidos y prestigiosos profesores José Miguel Barandiarán y Manuel Lekuona que lo iniciaran en ellos, nunca ha dejado de interesarse y profundizar en esos trabajos.

DEBA Udaberria alean:

* Argazki batzuk izenpetu gabe daude:

-Portadako argazkia ALLIKArenda da.

- Barnekaldean, 16, 34 eta 35 orrialdeetako argazkiak, Enrique Oñederrarenak dira.

* Agerretxetik Lukasek idatzitako poemari, bertso batzuk falta zaizkio. Hemen berriro argitaratzen dugu osoa:

DEBAKO KILOMETROARI

*Gure eguna dela
KILOMETRO eguna
pilo bat kilometro
egingo duguna,
Lantegi Eskola bat
laguntza guztiena
Debako herriari
egingo zaiona.*

*Egun paregabea
elkartzen garena
euskararen alde
KILOMETROarena,
festarik ederrena
prestatzen duguna
ondo pasatuko da
hona datorrena.*

*Jendea ikusten da
zirkuitora hurbiltzen
gero eta gehiago
giroa alaitzen
leku guztietatik
Debara ailegatzen
hasieran farrezka
azkena dantzatzen.
Pozik ikusten dute
gure emanaldia
eguzkia badator
hauxe eguraldia
hau dena guztia da
gure jaialdia
gauean inor gabe
helduz ixilaldia.*

Agerretxetik Lukasek




AUTOS MUTRIKU

servicio oficial

Ttes. Churruca, 5

Telfs. 943/603100-94/6865024 (Serv.Grua)



kaioa

Cada día más.

BABELGO DORREAK

*Nola errekaetoaren urak inoiz
naturaren poderioz handiturik
legokiekeen ubidearo desegokitu eta
molda arrotzetan behera amiltzen diren
hala gizakiaren egintzak ete
patuaren halabeharrez arazoturik
asmo eragile guziari alderatu eta
ustegabeko noraezean suertatzen dira.*

*Jainkoek farre egin ohi eomen dute
gizabidearen arrakala hoiei erreparatuz
eta hain ozenki egin ere non
bere ohiartzuna ludi osoan aditzen den.*

*Gizakiak, errekaetoak ez bezala,
galdutako adorearen oroimenez eta
algara jainkotiarraren lotsaz
Babelgo dorreak eraiki ohi ditu
fortunaren menpean dauden beraren egintzek
ostera gainez egin ez dezaten.*

(Treku)



KILOMETROAK 86

EUSKARAREN INDARRA
GURE INDARRA